

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

LH 4. maila

2024-2025 IKASTURTEA

ZUZENTZEKO KOADERNOA

EUSKARAZKO

HIZKUNTZA GAITASUNA

INDIZEA

I. LABURPENA	5
II. ZUZENDU BEHARREKO GALDERAK.....	7
A. ERANSKINA.....	10
B. ERANSKINA.....	13
C. ERANSKINA	15
III. AUDIOAREN TRANSKRIPZIOA.....	29
IV. IRAKURKETA PROZESUAK	31
V. KOADERNOA SOLUZIOEKIN	33

Honako hau da atal bakoitzaren edukia:

- I. LABURPENA

Probaren item bakoitza **zein motatakoa** den, zein duen **erantzun zuzena**, lor daitekeen **gehieneko puntuaketa**, dagozkion **oinarrizko jakintza, konpetentzia espezifiko** eta **ebaluatutako prozesua** taula batean bildu dira.

- II. ZUZENDU BEHARREKO GALDERAK

Zuzendu beharreko item bakoitzaren **erantzuna** eta **zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpideak**.

Eranskinetan zuzenketa egiteko jarraibideak (A eta B) eta hainbat adibide eta beren zuzenketak (C) atxiki dira.

- III. AUDIOAREN TRANSKRIPZIOA

Lehen zatiaren audioan entzundakoa.

- IV. IRAKURKETA PROZESUAK

Irakurketa prozesuak, itemaren erantzunaren mota eta testu mota.

- V. KOADERNOA SOLUZIOEKIN

Ikasleari emandako liburuxka bera, item bakoitzaren erantzuna nabarmendu delarik.

I. LABURPENA

Euskarazko hizkuntza gaitasuna frogak 27 item ditu. Horietako bederatzi zuzendu eta kalifikatu behar dira. Honako hauek dira:

3, 4, 5, 10, 12, 13, 21, 25 eta 27

Item bakoitza zein motatakoa den, zein duen erantzun zuzena, lor daitekeen gehieneko puntuaketa, dagokion oinarritzko jakintza, konpetentzia espezifikoa eta ebaluatutako prozesua ageri dira taula honetan:

	Itema	Itema mota	Erantzun zuzena	Gehieneko puntuazioa	Konpetentzia espezifikoa	Oinarritzko jakintza	Ebaluatutako prozesua
Entzumena <i>Errinozeroa</i>	1	Itxia	C	1	KE 2	B2.3 / B1.1/ B3.2	Interpretatzea
	2	Itxia	C	1	KE 2	B3.2	Interpretatzea
	3	Erdi-eraikia	Ikus II. atala	1	KE 2	B3.2	Aurkitzea
	4	Itxia	Ikus II. atala	1	KE 2	B3.2	Aurkitzea / integratzea
	5	Itxia	Ikus II. atala	1	KE 2	B3.2	Interpretatzea
	6	Itxia	B	1	KE 2	B3.2	Interpretatzea
	7	Itxia	A	1	KE 2	B3.2	Integratzea: ulermen globala.
	8	Itxia	B	1	KE 2	B3.2	Hausnartzea
Irakurmena 1. testua <i>Dinosauroak</i> - Jarraitua - Azalpena	9	Itxia	D	1	KE 4	B3.4	Aurkitzea
	10	Erdi-eraikia	Ikus II. atala	1	KE 4	B3.4	Interpretatzea
	11	Itxia	B	1	KE 4	B3.4	Aurkitzea
	12	Itxia	Ikus II. atala	1	KE 4	B3.4	Interpretatzea
	13	Erdi-eraikia	Ikus II. atala	1	KE 4	B3.4	Aurkitzea
	14	Itxia	D	1	KE 4	B3.4 / D.3	Integratzea / Aurkitzea
	15	Itxia	A	1	KE 4	B3.4	Interpretatzea
	16	Itxia	B	1	KE 4	B3.4	Aurkitzea
	17	Itxia	B	1	KE 4	B3.4	Interpretatzea
Irakurmena 2. testua <i>Postrea</i> - Etena - Instrukzioa - Errezeta	18	Itxia	A	1	KE 4	B3.4	Integratzea: ulermen globala
	19	Itxia	B	1	KE 4	B3.4	Hausnartzea
	20	Itxia	A	1	KE 4	B3.4	Interpretatzea
	21	Erdi-eraikia	Ikus II. atala	1	KE 4	B3.4	Aurkitzea
	22	Itxia	D	1	KE 4	B3.4	Aurkitzea
	23	Itxia	C	1	KE 4	B3.4	Interpretatzea
	24	Itxia	C	1	KE 4	B3.4	Aurkitzea
	25	Itxia	Ikus II. atala	1	KE 4	B3.4	Integratzea: ulermen globala
	26	Itxia	D	1	KE 4	B3.4/ B1.1/ D.4	Integratzea: ulermen globala
Idazmena	27	Irekia	Ikus II. atala	10	KE 4 / KE 5	B1.1/ B2.3 / B3.5/ D.4 / D.5 / D.6/	-
Puntuazioa guztira:				36			

II. ZUZENDU BEHARREKO GALDERAK

Atal honetan zuzendu beharreko bederatzi itemen **ebazpena** (hala dagokionean) zein **zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpideak** agertzen dira. Zuzendu eta kalifikatu beharreko galderak hauek dira:

3, 4, 5, 10, 12, 13, 21, 25 eta 27

3. Edonora joanda ere, zer ikusten zuen errinozeroak?

Zuzenketarako irizpideak	
Kalifikazioa	Erantzuna/k
1	<i>Bere adarra; adar bat; adarra; errinozeroaren adarra...</i>
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.

4. Zein ordenatan aipatzen dira hiri hauek entzun duzun istorioan? Erabil itzazu zenbaki hauek:

HIRIAK	Zenbakia
Bilbao	5
Kairo	1
Paris	3
New York	2
Tokio	4

Zuzenketarako irizpideak	
Kalifikazioa	Erantzuna/k
1	5, 1, 3, 2, 4.
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.

5. Adierazi entzun duzunari buruzko baieztapen hauek egia ala gezurra diren:

	E	G
A. Errinozeroa haserretzen zen bidaiatu behar zuelako.		X
B. Errinozeroak toki guztietan ikusten zuen adarra bere adarra zen.	X	
C. Dinosaurioek bazekiten desagertuko zirela.		X
D. Errinozeroak Fuji mendia ikusi zuen Alaskara joan zen batean.		X

Zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpideak
Kalifikazioa
0.25 puntu erantzun zuzen bakoitzeko (Gehienez, 1 puntu).

10. Zer esan nahi du Diplodocusaren burua “ñimiñoa” dela?

Zuzenketarako irizpideak	
Kalifikazioa	Erantzuna/k
1	<i>Burua txikia dela.</i>
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.

12. Markatu egia (E) ala gezurra (G) diren honako esaldi hauek:

	E	G
A. Diplodocusek taldean ibiltzea gogoko zuten.	X	
B. Beste sauropodo batzuek baino jarrera horizontalagoa zuten diplodocusek.	X	
C. Lepo luzea zutenez, zuhaitz altuen fruituez baino ez ziren elikatzen.		X
D. Inork ez zien erasotzen oso handiak zirelako.		X

Zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpideak	
Kalifikazioa	
0.25 puntu erantzun zuzen bakoitzeko (Gehienez, 1 puntu).	

13. Tyrannosaurus non bizi zen?

Zuzenketarako irizpideak	
Kalifikazioa	Erantzuna/k
1	<i>Asian eta Ipar Amerikan</i>
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.

21. Zer egin behar da kanela-zotza esnera bota eta gero?

Zuzenketarako irizpideak	
Kalifikazioa	Erantzuna/k
1	<i>Utzi eltzea estalita, bost minutuz.</i>
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.

- 25.** Adieraz ezazu 1, 2 3 eta 4 zenbakiak erabiliz errezeta prestatzeko zein ordenatan egin behar diren ekintza hauek:

3	Arrautzak eta esnea nahastu.
1	Esnea kanelaz usaingozatu.
4	Katiluetan banatu.
2	Azukrea gehitu.

Zuzenketarako irizpideak	
Kalifikazioa	Erantzuna/k
1	3, 1, 4, 2.
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.

27. Idazmena

ATALAK		PUNTUAZIOA 0 / 0,25 / 0,5 / 1
Plangintza		
Txukuntasuna		
Ortografia		
Gramatika-zuzentasuna		
Hiztegi-aberastasuna		
Egokitzapena		
Koherentzia		
Kohesioa	Lokailuak	
	Kohesioa mekanismoak	
	Puntuazioa eta paragrafoak	
27. itema – Osotara:		/10

NOLA ZUZENDU IDATZIZKO EKOIZPENA

- Maila bakoitzari dagokion puntuazioa: 0 1. mailara, 0,25 2. mailara, 0,5 3. mailara eta puntu 1 3+ mailara.
- Ondorioz, lor daitekeen gehieneko nota 10 puntukoa da.

Zeregin horri lehen aldiz aurre egin behar dioten irakasleentzat, gida bat baliagarria izan daitekeela uste dugu, zuzentzeko.

A eranskinean atal bakoitzaren deskribapena dago. Aldi berean, zuzenketa-prozedura homogeneo batera iristeko laguntza-material gisa balio izatea nahi dugu. Lehen Hezkuntzako 4. maila aipatzen dugu, baina edozein etapatan erabil daiteke. **B eranskina** bat dator ohiko **errubrikaren** formatuarekin eta aipatutako aldaketekin.

A. ERANSKINA

ZIRRIBORROA

Aurten ere uste dugu puntu bat (atal honetako gehieneko puntuazioa) zuzenean eman daitekeela zirriborroaren erabilera hutsagatik. Izan ere, haren erabilera sustatu nahi dugu, zalantzarik gabe, idazketa prozesua hobetzen baitu. Hala ere, ikastetxeek beren kabuz erabaki dezakete 0 puntu ematea, baldin eta uste badute ikasturtean zehar plangintza landu dutela eta inkoherentziak edo akatsak daudela erabileran. Akats horiek mota honetakoak izan ohi dira nagusiki: plangintza erabiltzen da, baina gero paragrafokako antolaketa edo informazioaren zati bat ez da islatzen behin betiko testuan. Emaizako testua, beraz, zirriborrokoa baino “okerragoa” da, eta hori inkoherentea da, gure helburua baita ikasleei idazten, berriz irakurtzen eta berrikusten irakastea, idazmena hobetze aldera.

AURKEZPENA:

oro har txukuntasun itxura izatea baldintza garrantzitsua da edozein idazki eta edozein lan akademiko aurkezteko. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak komunikazio gaitasuna sendotzeko prozesuan daude bete-betean, eta, beraz, garrantzitsua da argitasuna eta garbitasuna azpimarratzea. Arreta berezia jarriko dugu elementu hauetan: letra irakurgarria izatea; hitzen, lerroen eta paragrafoen arteko tartea; eta txantiloiak agertzen dituen marjinak errespetatzea, batez ere eskuinekoak. Ez da larria urratuak egotea, baldin eta dena delakoa marra batekin ezabatzen bada eta idazkia “zikintzen ez bada”.

ORTOGRAFIA:

Maila honetan, hau espero dugu ikasleengandik: hitzak* ongi bereiztea, maiuskulak zuzen erabiltzea izen propioetan eta esaldiaren eta testuaren hasieran; eta oinarriko hiztegia ortografia akatsik ez egitea (bereziki, ikastetxeak zikloaren berezko hiztegia zehaztu badu). Ortografia akatsei dagokienez, *tz/ts/tx/z/s/* grafiei erreparatuko diegu, eta *v* letra ez erabiltzeari.

* LHko 4. mailako ikasle batzuei dagokienez, hitzak bereiztea ez da argitasun arazoa izanen, ortografia akatsa baizik. Bi gaiak atal berean ebaluatzen direnez, irakasle bakoitzak egokitzen jo bezala kalifikatzen ahalko du.

ZUZENTASUN GRAMATIKALA:

Adi egon behar dugu konkordantzia akatsekin, aditz jokoetako akatsekin eta esaldi osatugabeak eraikitzearekin. Preposizioen eta izenordainen erabilerari ere erreparatu behar diogu.

ABERASTASUN LEXIKOA (eta erregistroa):

Kontuan hartu behar dugu hiztegi aberatsik dagoen eta errepikapen edo edozertarako hitz gehiegi erabiltzen ez diren (*gauza, zera, pertsona, egin, pasatu...*). 3. eta 3+. mailetan, ikasleek mezua aberastuko duten adjektiboak eta adberbioak erabiltzeko gai izan behar dute. LHko 4. mailan ohikoa izan daiteke nolabaiteko informaltasuna adierazten duten ezaugarriak egotea, baina ikasleek ahozko hizkuntza eta idatzizkoa bereizten hasi beharko lukete.

EGOKITASUNA:

Ongi idatzitako testuak definitzen dituen propietateetako beste bat da; igorleak komunikazio egoerara egokitzeko duen gaitasunari egiten dio erreferentzia (irakurle mota, asmoa, testuingurua...). Horrek pixka bat gainditzen du LHko 4. maila, eta, beraz, arreta jarriko dugu, ikasleek agindutako zeregina betetzen dutela egiaztatzeko. Hasteko, ikasleak gai izan beharko luke baloratzeko ea eman duen informazioa nahikoa den eskatu zaion mezua osatzeko. Horiek horrela, informazio horren luzera eta mota aztertuko ditugu.

Beste alderdi nagusia izanen da ezarritako helburua betetzeko aukeratu duen testu mota edo formatua. Kasu honetan, web-orrian sarrera bat idazteko eskatzen da, hau da, ez da testu-genero oso zehatz bat; ez da beharrezkoa albiste-formatua izatea, nahikoa da helburu nagusia betetzea, erregistroa lagunartekoa ez izatea eta hartzaileari zuzenean ez zuzentzea.

KOHERENTZIA:

Testuak zentzu globala izan behar du, eta progresio logikoa ere bai ideiak azaltzean. Testua koherentea izanen da, informazioa egokia bada, irakurle ertain batentzat ulergarria bada eta zentzua transmititzen badu. Horretarako, ezin da barne kontraesanik, justifikaziorik gabeko jauzirik edo garrantzirik gabeko informaziorik egon.

KOHESIOA

Ongi idatzitako testu batek erreferentzia mantendu behar du, eta ez du haria galdu behar; horixe da, hain zuzen ere, ikasleen arazo tipikoa. Erreferentzia hori eta testuaren zatien arteko erlazioak bermatzeko, mekanismo gramatikal-sintaktiko eta lexiko desberdinak erabiltzen ditugu. Beraz, honako hauek aztertuko ditugu hemen:

- **Lokailuen erabilera.** Maila honetan lokailu sinpleak eta ez oso anitzak espero ditugu, baina ongi erabiliak (*baina, gainera, horregatik* edo antzekoak); eta juntagailua gehiegi erabiltzen ez dela zainduko dugu.

- **Nola mantentzen den erreferentia eta nola saihesten diren gehiegizko errepikapenak:** maila honetan, batez ere sinonimoekin eta izenordainekin. **Denbora korrelazioa** aditz formetan (egiaztatu ez duela etengabe aldatzen aditz denbora).
- **Puntuazioa:** etapa honetako ikasleek gai izan behar dute perpausak puntuka behar bezala bereizteko, testua logika bati jarraitzen dioten paragrafoetan egituratzeko, eta komaren bat erabiltzeko (gehiago interesatzen zaigu asmoa, eta ez dadila izan komen ausazko erabilera).

Zuzenketa-irizpideak argitzeko, Ebaluazio Atalera jo daiteke. "Sanz, A. (2009). *Testu idatziak zuzentzeko orientabideak. Ebaluazio diagnostikoa. Lehen Hezkuntza*. Hezkuntza Ikuskaritzako koadernoak 8. zenbakia. Nafarroako Gobernua." hartu da erreferentzia gisa. Bertan azalpen osagarriak aurki daitezke, irakaskuntzan oro har jarduteko ere baliagarriak, baita zuzenketa adibideak ere. Esteka honetan deskarga daiteke:

https://www.educacion.navarra.es/eu/web/publicaciones/ultimas-publicaciones/-/asset_publisher/JONi5m8mCym2/content/orientaciones-para-la-correccion-de-textos-escritos-evaluacion-diagnostica-educacion-primaria

B. ERANSKINA

	1. maila 0	2. maila 0.25	3. maila 0.5	3+. maila 1
Plangintza	Ez du zirriborrorik egin.			Zirriborroa egin du.
Aurkezpena	Zirrimarra asko dago, ez dago marjinarik, letra irakurtezina da.	Letra ez da ona, zirrimarra dezente dago.	Oro har, testua txukun idatzita dago: irakurterraza; marjinak ongi zehazturik daude.	Txukun idatzita dago: ez dago zirrimarrarik, letra argia eta irakurterraza. Marjinak ongi zehazturik daude.
Ortografia	Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako. Akats egin asko ditu: (ez ditu hitzak banatzen; letra larriak ez ditu erabiltzen edo gaizki erabiltzen dit; h, ts, tx eta tz gaizki erabiltzen ditu).	LHko 4.eko maila ez du oraindik bereganatu, baina bidean da. 5-10 akats Letra larriak , h, ts, tx eta tz gaizki erabiltzen ditu batzuetan eta hitzak ere ez ditu beti ongi banatzen.	Lehen Hezkuntzako 4. mailarako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: Testu laburrak direnean (10-15 lerro), bost akats, gehienez; (tz/ts/tx/z/s/x) gaizki idatziz gero, horietako 5 akats bakartzat hartuko dira; zortzi akats, gehienez, testuak luzeagoak direnean. Akatsen bat gorabehera, letra larriak zuzen erabili ditu eta hitzak ondo banatu ditu.	Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du. Oso akats gutxi egin ditu (hitzak ongi banatzen ditu; oinarritzko hiztegia ondo idazten du; letra larrien erabilera arauak aplikatzen ditu; h, ts, tx, tz ongi erabiltzen ditu).
Gramatika-zuzentasuna	Nabarmen eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako. Komunikazioa eragozten duen gramatika akats dezente egin ditu. Adibidez: - Komunztadura akatsak (ergatiboa, pluralgilea, deklinabidea...) - Aditz-formak ez dira egokiak - Esaldi batzuk bukatu gabe daude. - Esaldi batzuk luzeegiak dira. - Galdegaia gaizki erabili du. <u>Perpausak</u> : esaldi osatugabeak.	Gaitasuna eskuratzeko bidean, baina oinarritzko egitura gramatikaletan hutsune asko dago. Mezua ulertzen da, baina behin eta berriz errepikatzen diren akatsak daude. Adibidez: aditza, deklinabidea, komunztadura, galdegaia... <u>Perpausak</u> : esaldiak bukatu gabe; ez du mendeko perpaus bakar bat ere erabili.	Lehen Hezkuntzako 4. mailarako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: - Aditzak: oro har, zuzen erabili ditu (denbora eta aspektua). - Komunztadura akats batzuk bakarrik egin ditu (ergatiboa, pluralgilea...) - Deklinabidea: kasu markak ongi erabili ditu, oro har. - Galdegaia ondo erabili du. <u>Perpausak</u> : perpausak ideia osoak adierazten dituzte; ez du esaldi luzeegirik erabili.	Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du. Ez du gramatika akatsik egin. <u>Perpausak</u> : sintaxia menderatzen duela erakusten duten zenbait perpaus mota erabili ditu ideia osoak adierazi ditu, perpausak ez dira oso luzeak eta egiturak zuzenak dira. Mendeko perpausak ere erabili ditu.

Hiztegia- aberastasuna	- Makulu-hitz asko erabili ditu: "gauza, egin, pasa, zera..." - Erdarakadak erabili ditu. - Arrunkeiak baliatu ditu Ahozketasunaren berezko hizkuntza erabili du, hizkera idatzian berezkoa den kodetik urrunduz.	Batzuetan erabili duen erregistroa oso lagunartekoa da eta hiztegia oso oinarritzkoa.	- Hiztegi anitza erabili du. - Ez du erdarakadarik erabili. Erregistro egokia erabili du.	Lexiko aberatsa baliatu du, mezua aberasten eta zehazten duten zenbait adberbio eta adjektibo erabili ditu. Erregistro egokia erabili du.
Egokitasuna	Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako. Ez du zeregina bete (luzera, xedea, ikuspegia).	Oraindik ez da nahikoa LHko 4.mailarako. Ez da erabat koherentea, baina agindutako zeregina betetzen saiatu da. Ataza ulertu du, baina laburregia da. Eskatutako elementu asko falta dira...	Lehen Hezkuntzako 4.erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: Agindutako zeregina bete du, nahiz eta punturen batean huts egin.	LHko 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du. Agindutako zeregina bete du, sortzaile ere izan daiteke.
Koherentzia	Egitura ez da argia, testuak ez du zentzu globalik, kontraesanak eta justifikatu gabeko hutsuneak daude eta beharrezkoa den informazioa falta da.	Ez da inkoherentea, baina egitura ez da behar bezain argia. Batzuetan justifikatu gabeko hutsuneak daude edo gai beraren gainean aritzen da, kontraesanak daude	Ez da perpaus batzuetatik besterako jauzirik antzeman, ezta justifikatu gabeko hutsunerik ere. Informazioa modu progresiboan eta orekatuan azaltzen da. Akatsen bat gorabehera, informazioa ondo ulertzen da.	Barne egitura argia da, gaiaren progresioa ere ona da, errepikapen eta jauzirik gabe. Hartzaileari mezua argi geratu zaio.
Kohesioa	Ez dago erreferenteari eusteko eta ideiak konektatzeko mekanismorik. Hona hemen arazo horietako asko:	Erreferenteari eusteko eta lotzeko mekanismo gutxi daude.	Orokorrean testua kohesionatua dago, baina oraindik akatsen bat antzeman daiteke.	LHko 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du.
	<u>Lotura</u> : ez du konektorerik erabili.	<u>Lotura</u> : beharrezkoak izanik ere, ez du konektorerik erabili edo gaizki erabili ditu.	<u>Lotura</u> : paragrafoak zein perpausak ongi loturik daude (lokailuak, menderagailuak, puntuazioa...).	<u>Lotura</u> : antolatzaile eta lokailu asko erabili ditu edo modu zehatzean baliatu ditu.
	<u>Erreferentea</u> : ez dago argi zertaz ari den. Errepikapen gehiegi.	<u>Erreferentea</u> : batzuetan galdu egin du. Behar ez diren errepikapenak daude.	<u>Erreferenteari eutsi dio</u> : ez dago alferrikako errepikapenik.	<u>Erreferenteari eutsi dio</u> : argi dago zertaz diharduen. Sinonimoak, izenordainak eta substantibazioa erabili ditu.
	<u>Puntuazioa</u> : gaizki erabili ditu puntuak. Ez dago paragraforik.	<u>Puntuazioa</u> : puntuak erabili baditu ere, ez du komarik erabili edo gaizki erabili ditu. Ez dago paragraforik edo gaizki banatuta daude.	<u>Puntuazioa</u> : puntuak ondo erabili ditu eta koma batzuk ere baliatu ditu. Harridura ikurrak, galdera ikurrak eta gidoiak, oro har, zuzen erabili ditu. Gutxienez hiru paragrafotan banatu du testua	<u>Puntuazioa</u> : puntuak eta komak oso ondo erabili ditu. Harridura, galdera ikurrak eta gidoiak zuzen erabili ditu. Paragrafoak ondo bereizi ditu.

C. ERANSKINA

Jarraian, aurrez azaldutako irizpideen arabera zuzendutako bost adibide atxiki dira. Idazlan bakoitzari eman zaizkion puntuazioez gain, zuzenketen deskripzio zehatzak ageri dira.

1. adibidea:

1. paragrafo	Nire izena da eta niren clasea gustokoena da gimasia musika Beat dugu eta eta Natalia azeretzen da eta Proiektua eta Ane frank liburuak eta ere bere gustoko dut
2. paragrafo	da oso diver ti garria Gira gogor dugu
3. paragrafo	Mate ez dut gustoko daria da clase dat
4. paragrafo	eta Natalia da columpio bat eta kumeta

Kaixo, Balal:

Nire izena da eta niren da Ikusi
ko dugu Oria eskola nire clasea
gustokoena da gimasia proiektua eta
Ane frank liburuak eta ere bere dau kugu
musika eta bere ekarri frakta Zergatik gero
Natalia

Zu ezagutzeko irrikitan nago. Laster arte eta besarkada handi bat!

		1. adibidea	Puntuazioa
Plangintza		Zirriborroa egina dauka eta bete du.	1
Txukuntasuna		Aldez aurretik plantillan zehaztutako marrazkoen gainetik idatzi du, testuari txukuntasuna kenduz. Letra ez da ona.	1
Ortografia		Letra larrien erabilera arauak ez ditu baliatzen, ez izen propioetan ez puntu ostean. Testua motza dela kontuan hartuz, akats ortografiko nahiko ditu oinarritzko hitzetan: “clasea”; “ori”	0
Gramatika zuzentasuna		Testua osoa komunztadura akatsez beteta dago. Ez daude esaldirik, testua bera esaldirik gabeko osotasun bat da. Esaldi bukatu gabe daude.	0
Hiztegi aberastasuna		Arrunkeria baliatu du. Erregistro egokia.	0.25
Egokitasuna		Agindutako zeregina bete du baina ematen duen informazioa oso eskasa da. Bere proposamenaren inguruan ez dugu ia ezer ezagutzen.	0
Koherentzia		Testuak ez du zentzu globalik eta testuak koherentzia eskasa dauka.	0
Kohesioa	Lokailuak	Ez du konektorerik erabili.	0
	Kohesioa mekanismoak	Ez dago argi zertaz ari den, testua zentzu handirik gabeko esaldiz osatua dago.	0
	Puntuazioa eta paragrafoak	Gaizki erabili ditu puntuak. Beharrezkoa denean ez dago komarik. Ez dago paragraforik, testua paragrafo bat osatzen du.	0
- Letra larrien erabilera eta ortografia oinarritzko arauak ez ditu menderatzen. - Testu eskasa dagokion irakas mailarako: hiztegi arruntzia eta sinpleegia, aditzen erabilera errepikakorra... - Testuak koherentzia eskasa dauka eta honekin bat etorritik, bere egokitasuna ere eskasa da. - Testuak ez dauka kohesiorik, ideia guztiak batera ageri dira paragrafo bakar batean.			
28. itema - Osotara			2.25 / 10

2. adibidea

ZIRRIBORROA egitea derrigorrezkoa da.

1. paragrafo	Ni ... nize eta ikastola on deskribatuko dizat patio handia dauka gurea asko kikin jolasteko.
2. paragrafo	Egun normal batean host klase eta bi patio dauka lehenengo patioa 30min eta bigarren patioa 15min.
3. paragrafo	Niketat oso ongi dago polita handia... eta bat
4. paragrafo	Gelen gustatzen zaizkion sointak da eta gutxiar gustatzen zaizkion inglesak da. argi.

Kaixo, Balal:

Ni ... nize eta ikastola on deskribatuko dizat patio handia dauka eta gurea asko jolasteko.

Egun normal batean, host klase eta bi patio dauka lehenengo patioa 30minutue da eta bigarrena 15min.

Niki asko gustatzen zaizkion polita handia eta bat.

Gelen gustatzen zaizkion sointak da eta gutxiar gustatzen zaizkion inglesak da. argi.

		2. adibidea	Puntuazioa
Plangintza		Zirriborroa bete du eta nahiz eta testuaren kopia bat izan.	1
Txukuntasuna		Marjinak ez ditu bere osotasunean errespetatu, motz geratu da. Bere kaligrafia irakurtzeko nahiko zaila da. Zenbait hitz irakurtezinak suertatzen dira.	0.5
Ortografia		Puntu ostean letra larria ipintzearen araua bete du hala ere, bere izena minuskulaz idatzi du. Akats ortografiko gutxi egin ditu: “au”, “sboſt” eta “geien”.	0.25
Gramatika zuzentasuna		Ez dago gramatika akats nabarmenik ikaslearen adinerako. Ulermena eragozten duten komunztadura akatsak: “30 minutuz”. Gehienak esaldi sinple eta osatugabeak. Beste batzuk, orde, luzeegiak (bitan zatitu ahal).	0.5
Hiztegi aberastasuna		Hiztegi sinpleegia eta arruntzia erabili du. Erregistro zuzena baliatu du.	0.25
Egokitasuna		Agindutako zeregina bete du baina ideiak oso era azkarrean eta gainerik garatu ditu.	0.25
Koherentzia		Nolabaiteko barne egitura dauka hala era, ideak oso era sinple, labur eta gainerik lantzen ditu.	0.5
Kohesioa	Lokailuak	Ez du konektorerik erabili.	0
	Kohesioa mekanismoak	Izan aditzaren erabilera errepikakorra. Gutun osoan zehar argi geratzen da zertan mintzatzen den. Ideia berdina bi aldiz errepikatu du: gustuko dituen gauzak.	0.25
	Puntuazioa eta paragrafoak	Puntuak zuzen erabili ditu. Komak gaziki baliatu ditu. Paragrafoen banaketa argia da hala ere, paragrafo motzak dira eta azkeneko biak elkartu daitezke.	0.25
- Nahiz eta ortografia akats gutxi eduki, letra larrien erabilera arauak ez ditu menderatzen. - Testu eskasa dagokion irakas mailarako: hiztegi oinarritzkoa eta sinpleegia, aditzen erabilera errepikakorra eta erraza... - Testua koherentzia urria dauka, baina agindutako zeregina gainerik bete du. - Testuak kohesio makala dauka izan ere, lotura burutzeko mekanismo gutxi daude.			
28. itema - Osotara			3.75 / 10

3. adibidea

1. paragrafo	Nik noiz izena dut Eta orain kontutuko ditek Pistu bat neke esholen
2. paragrafo	lehenik kontutuko ditek zer gustutzen zait eta zer ez estolatzen niki gustatzen zait duhela gela asho etanobokandia du
3. paragrafo	niki ez zaitena gustatze du du duhela pertson asho molestatu egiten duena eta azterketak du dela
4. paragrafo	eta orain deskribapen txiki bat lerengo saktzeren eldin dagon atean eta ihusi batzue eskulak gola ioan eta orain 50 lerengo maila eta ondoren 50 lerengo

2. maila gola ioateza eta
3. eta 4. maila bekkiz gola eta 6. maila

14

Kaixo, Balai:

Nik izena dut eta okuin kontatuko
dizut nire eskola. Lehenik kontatuko
dizut nire gus tuten zuten eskolatik,
niri gus tuten zut eskola den bera
gela esko eta oso handia dela.
Ez zuten gus tuten da dardela
Peltson asko molestatzen duen eta
agertketan dardela.

eta okuin deskribapen txiki bat
lehenago sartzeaz eta ihusi behar duzu
okuitela esko illotzeaz eta ok dardela!
1. eta 2. maila illotzen za eta ok
3. eta 4. maila gello eta 6. maila
eta leitei egiten za eta etortzen
3. mailatik pasillara eta etortzen
eta ok semaila.

		3. adibidea	Puntuazioa
Plangintza		Zirriborroa bete du eta nahiz eta testuaren kopia bat izan.	1
Txukuntasuna		Testua orokorrean txukun dago nahiz eta, marjinak nahiko eskas zehaztuak daude. Letra ez da oso atsegina irakurtzeko hala ere, orokorrean ulergarria da.	0.5
Ortografia		Letra larrien erabilera arauak oker erabili ditu. Testua motza dela kontuan hartuta, akats ortografiko bakarra dago ("or").	1
Gramatika zuzentasuna		Gramatika akats nabarmenak: "niri gustatzen zait eskola daukela gela asko eta oso handia dela" Oso esaldi luzeak erabiltzen ditu. Bukatu gabeko esaldiak ageri dira. Aditz denbora egokia eta konstantea erabili du, nahiz eta, . Orokorrean komunztadura zuzena erabili du.	0.5
Hiztegi aberastasuna		Lagun arteko hiztegia erabili da. Euskarakadaren bat ere erabili du: "edo horrela"; "ezberdin egiten ditugu"... Lagunarteko erregistroa erabili du, testuaren gaira egokituta.	0.5
Egokitasuna		Agindutako zeregina ulertu du hala ere, informazioa eskasa da eta puntu edo informazio asko falta da. Gainera, eskolaren deskribapenean testuaren gehiengoan zentratzen da.	0.25
Koherentzia		Narrazio koherentziaz hasi zein garatu du hala ere, amaiera ematea falta zaio.	0.5
Kohesioa	Lokailuak	Beharrezkoak izanik ere, ez du konektorerik erabili.	0
	Kohesioa mekanismoak	Ez dago alferrikako errepikapenik.	1
	Puntuazioa eta paragrafoak	Puntuazioa era okerrean erabili du eta paragrafoak gaizki banatu ditu.	0.25
- Letra larrien erabilera ez du menperatzen eta akats ortografiko gutxi ditu. - Gramatikako hutsune nahikotxo. - Testua koherentea da. Testuari hasiera eta garapen onak ematen dizkio hala ere, eskatutakoaren inguruko informazio gutxi ematen du. - Ideiak lotzeko mekanismo gutxi daude. Esaldi luzeak erabiltzen ditu eta horrek testuaren ulermena zailtzen du.			
28. itema - Osotara			5.5 / 10

4. adibidea

1. paragrafo	Ni naiz... Nire burua aurkeztu Gure gela... Eskolaren deskribapena
2. paragrafo	Zer egiten dugun zere egun batean. Zer gustatzen zaidan zerez. Eskolaren deskribapena
3. paragrafo	Agurra.
4. paragrafo	

Kaixo, Balal:

Ni naiz 10 urte ditut ~~Buztintxur~~ Buztintxur
bizi naiz. eta haren eskolara joaten
naiz. Jakidanez zuk ere Buztintxuriko
eskolara joango zara, gutun honetan
eskola nola den eta ze gauza dituen
kontatuko dizkizut.

Egun batean 5 hordu edo horrela egoten
gara eskolan. Egunean 4 ikasgai ~~egun~~
ezberdin egiten ditugu. 30 minutu ditugu
patio. Nire gogoko ikasgaiak dira: In-
gelesa, proiektua, plastika eta Hezkuntza
harreta. Ez zaidana asko gustatzen
da patioan bakarrik 30 minutu egon
gaitzekela.

Espero dut gutun hau baliogarria
izatea gure eskola nola den jakiteko
eta gogo askorekin etartzeko.
Espero dut oso lagun onak
izatea.

		4. adibidea	Puntuazioa
Plangintza		Zirriborroa bete du eta ideiak antolatu ditu. Zirriborroan testuan erantzungo dituen galderak zehaztu ditu.	1
Txukuntasuna		Testua orokorrean txukun dago nahiz eta, zirrimarra batzuk ageri dira. Letra argia, atsegina eta irakurterraza erabiltzen du. Marjinak eskas zehaztu ditu.	1
Ortografia		Letra larrien erabilera arauak zuzen erabili ditu. Akats ortografiko gutxi: “hordu” eta “harreta”.	1
Gramatika zuzentasuna		Orokorrean komunztadura zuzena erabili du. Hala ere, zenbait akats ageri dira: “gutun honetan eskola nola den eta ze gauza dituen kontatuko dizkizut” eta “Ez zaidana asko gustatzen da patioan bakarrik 30 minutu egon gaitezkeela”. Idea osoak adierazten ditu, luzera ezberdineko esaldiak erabiliz. Sintaxia menderatzen du, ez du gramatika akatsarik. Aditz denbora egokia eta konstantea erabili du.	1
Hiztegi aberastasuna		Lagun arteko hiztegia erabili da. Euskarakadaren bat ere erabili du: “edo horrela”; “ezberdin egiten ditugu”... Lagunarteko erregistroa erabili du, testuaren gaira egokituta.	0.5
Egokitasuna		Agindutako zeregina ulertu du hala ere, informazioa eskasa da eta puntu edo informazio asko falta da.	0.25
Koherentzia		Paragrafoen arteko banaketa egin du eta ideiak oso era argian banatu ditu, paragrafo batean idea bakarra garatuz. Narrazio koherentziaz hasi eta bukatu du.	1
Kohesioa	Lokailuak	Paragrafoak zein perpausak ongi loturik daude.	1
	Kohesioa mekanismoak	Gutun osoan zehar argi geratzen da zertan mintzatzen den.	1
	Puntuazioa eta paragrafoak	Puntuazioa zuzen erabili du. Testuak gutxienez hiru paragrafo ditu.	1
- Letra larrien erabilera menperatzen du eta txukuntasun oso egokia dauka. - Testua koherentea da. Testuari hasiera eta amaiera onak ematen dizkio hala ere, eskatutakoaren inguruko informazio gutxi ematen du. - Orokorrean testua kohesionatua dago, baina oraindik akatsen bat antzeman daiteke - Egitura gramatikaletan hutsune batzuk ditu.			
28. itema - Osotara			8.75 / 10

5. adibidea

1. paragrafo	Aurkeztu nire burua
2. paragrafo	Escolaren deskribapen txiki bat
3. paragrafo	Zer egiten dugun gahi ematen ditugun Zer den gutxiesten gustatzen zaidan gahia.
4. paragrafo	zer den ^{eskolatik} gehien gustatzen zaidan gauzak

Kaixo, Balai:

Ni naiz 10 urte ditut eta LH5. Agarren mailan nago.
Asko gustatzen zait gauzak berriak ikastea eta
horain Ikasitzaileen deskribapen txiki bat egingo dizut.

Lehenik eta behin, ikastola oso handia da eta
Batzillerraino dauka. Jantokia, patioa, txiki bat ge deitzen
dioguna. Arantza or ~~egiten~~ lan egiten duen pertsona.
Arantza deitzen delako eta hor zauriak sendatze ditu.

LH5An ematen ditugu aintzat gauza:
Mate, Lengua, Soinuketa, Ingeurune, Plastikak eta Euskara.
Gutxiesten gustatzen zaidan gahia, Lengua da, asko
idazten dugulako.

Azkenik kontatuko dizut eskolatik gehien gustatzen
zaidan gauza eta da: PATIOA!!
Bueno. Balai espero dut asko gustatzea gure ikastola
musu handi bat.
Agur!!

		5. adibidea	Puntuazioa
Plangintza		Zirriborroa bete du eta ideiak antolatu ditu. Hau, ideiak antolatzeko lagungarri gisa erabili du, testuan zirriborroan bildutako ideiak garatuz.	1
Txukuntasuna		Nahiz eta zirrimarra bat egon, testua nahiko txukun idatzia dago. Letra argia, atsegina eta irakurterraza erabiltzen du.	1
Ortografia		Oso akats gutxi egin ditu: “ <i>horain</i> ”; “ <i>gahia</i> ”; “ <i>ainbat</i> ”; “ <i>or</i> ” eta “ <i>5.A. garren</i> ”. Letra larrien erabilera arauak zuzen erabili ditu, izen propioetan eta irakasgaietan erabiliz.	0.5
Gramatika zuzentasuna		Orokorrean komunztadura zuzena erabili du hala ere, zenbait akatsak daude: “ <i>gauzak berriak</i> ”. Esaldi batzuen hitzen ordena okerra (gaztelaniako itzulpen zuzenak) da: “ <i>asko gustatzen zait gauzak berriak ikastea</i> ” edo “ <i>...gehien gustatzen zaidan gauza eta da...</i> ”. Idea osoak adierazten dituzte. Aditzak , oro har, zuzen erabili ditu.	0.5
Hiztegi aberastasuna		Lexiko egokia erabili du. Erdararakadaren bat erabili du lehen aipatutako esaldien egituran. Egoerari egokitutako erregistro egokia baliatu du.	1
Egokitasuna		Agindutako zeregina bete du. Gainera gutuna era originalean eta testuaren ezaugarriei bat eginez bukatu du (agurra txertatu dio). Anekdotak pertsonal bat ere integratu du.	1
Koherentzia		Barne egitura argia.	1
Kohesioa	Lokailuak	Testuari kohesioa emateko antolatzaile nahikoak erabili ditu: “ <i>Lehenik eta behin</i> ,” eta “ <i>azkenik</i> ”.	1
	Kohesioa mekanismoak	Gutun osoan zehar argi geratzen da zertan mintzatzen den.	1
	Puntuazioa eta paragrafoak	Puntuazioa zuzen erabili du: komak, puntuak, etab. beharrezko lekuan ipiniz. Harridura markak zuzen kokatu ditu eta zerrenda bat gauzatzean beharrezko puntuazio markak jarri ditu. Paragrafo kopuru egokia baliatu du. Nahiz eta azken esaldiaren eta azken paragrafoaren artean bereizketa hutsune argi bat ez egon, paragrafoen arteko banaketa egokia egin du. Ideiak oso era argian banatu ditu, paragrafo batean idea bakarra garatuz.	1
- Ortografia eta letra larrien erabilera menperatzen du. - Orokorrean, zenbait esaldi ez ezik, testua erraz irakurtzen da. - Testua koherentea eta egokia da. Ideiak era naturalean integratzen ditu eta gaiaren progresioa ona da. - Nahiz eta lokailu gutxi erabili, testuaren kohesioa argia da. Horri esker, testuaren irakurketa eta ulermena erraza da.			
28. itema - Osotara			9 / 10

6. adibidea

1. paragrafo	Kaixo, Balal: Ni naiz. Entzun dut gure eskolara etorriko zarela. Gure eskolak gela asko ditu, adibidez: musika gela, arte gela...
2. paragrafo	Egunero gauza asko ikasten ditugu, adibidez: zatiketak egiten, hitzei tildeak jar-tzen... eta horrelakoak.
3. paragrafo	Niri gure eskolatik lagunekin egotea gustatzen zaizkigu eta ez zaidana gustatzen eztertutak eta frogak egitea da.
4. paragrafo	Zu ezagutzeko irrikan nago, muxu handi bat a.

Kaixo, Balal:

Ni naiz. Entzun dut gure eskolara etorriko zarela.

Gure eskolak gela asko ditu, adibidez: musika gela, arte gela, erlijio gela... Egunero gauza asko ikasten ditugu, adibidez: zatiketak egiten, hitzei tildeak jar-tzen... eta horrelakoak.

Niri gure eskolatik lagunekin egotea eta gauza gehiago ikastea gustatzen zaizkigu eta ez zaidana gustatzen eztertutak eta frogak egitea da. Bai nago oso ongi dago.

Zu ezagutzeko irrikan nago muxu handi bat a ♡♡♡

		6. adibidea	Puntuazioa
Plangintza		Zirriborroa bete du eta ideiak gutxi gorabehera antolatu ditu nahiz eta, testuaren kopia bat izan.	1
Txukuntasuna		Oso txukun idatzia dago eta letra argia, atsegina eta irakurterraza erabiltzen du.	1
Ortografia		Letra larrien erabilera arauak zuzen erabili ditu. Ez daude akats ortografikorik.	1
Gramatika zuzentasuna		Sintaxia mederatzen du, ez du gramatika akatsarik. Aditz denbora egokia eta konstantea erabili du. Komunztadura zuzena erabili du bere osotasunean. Idea osoak adierazten ditu luzera egokiko perpausak erabiliz.	1
Hiztegi aberastasuna		Lagun arteko hiztegia erabili da, egoerari egokituz. Hiztegia oinarritzkoa zein aberatsa ("irrikitan") da. Egoerari egokitutako erregistro egokia baliatu du.	1
Egokitasuna		Agindutako zeregina bete du. Gainera gutuna era originalean hasi eta bukatu du.	1
Koherentzia		Barne egitura argia eta gaiaren progresio ona.	1
Kohesioa	Lokailuak	Antolatzaile gutxi ("adibidez"; "baina") erabili ditu hala ere, ideiak era egokian eta argian lotuak daude.	1
	Kohesioa mekanismoak	Gutun osoan zehar argi geratzen da zertan mintzatzen den.	1
	Puntuazioa eta paragrafoak	Puntuazioa zuzen erabili du: komak, puntuak, etab. beharrezko lekuan ipiniz. Paragrafo kopuru egokia baliatu du. Paragrafoen arteko banaketa egin du eta ideiak oso era argian banatu ditu, paragrafo batean idea bakarra garatuz.	1
- Ortografia eta letra larrien erabilera menperatzen du. - Testua erraz irakurtzen da honen komunztadura eta hiztegiari esker. - Testua koherentea da, informazio zehatz asko ematen du eta ideia guztiei zentzua ematen die era argi eta naturalean. - Testuaren kohesioa argia da. Horri esker, testuaren irakurketa eta ulermena erraza da.			
28. itema - Osotara			10 / 10

III. AUDIOAREN TRANSKRIPZIOA

- Eta... nola imajinatzen duzu mundua zu desagertzen zarenean?
- Galdera zailak egiten dituzu, gero! Baina, begira, kontatuko dizut errinozeroaren istorioa.
- Errinozeroarena? Zer, sudur puntan adar handi hori duen animalia horrena?
- Hori da! Errinozeroak maite zuen bidaiatzea, leku guztietara joaten zen. Egon ahal zen Kairon, eta egon ahal zen Helsinkin. Ezagutzen zuen Cape Town, eta ezagutzen zuen New York ere ederki. Baina joaten zen lekura joaten zela, bazen sakon-sakonean haserretzen zuen zerbait: edonora joanda ere, beti gertatzen zitzaiolako gauza bera. Joaten zen Parisera eta ikusten zituen Eiffel dorrea eta Notre Dame, baina guzti-guztiaren erdian beti errinozero-adar handi bat zegoen han. Joaten zen Japoniara eta ikusten zituen han Tokio, Osaka eta Fuji mendia, baina han ere errinozero-adar handi bat zegoen guzti-guztiaren erdian. Bidaiatzen zuen Alaskara eta ikusten zuen elurra han mara-mara, baina han ere, hara hor, guztiaren erdian errinozero-adarra. Joaten zen Paranaribora, joaten zen Nairobira, joaten zen New Delira eta joaten zen Bilbora, eta leku guztietan topatzen zuen ditzosozko errinozero-adar bera.
- Bueltatu zen azkenik etxera, eta bere logelara heltzean hantxe zeukan esperoan betiko errinozero-adarra.
- Bai, berea, hori da, baina, zer esan nahi didazu horrekin?
- Bada, asko kostatzen zaigula mundua gu gabe irudikatzea, errinozeroari bezala.
- Eta orduan, zuk uste duzu dinosauroek, adibidez, ez zutela desagertuko zirenik susmatzen? Hain handiak, hain baldarrak, eta ez zuten desagertuko zirenik pentsatzen?
- Dinosauroek?
- Bai, dinosauroek.
- Dinosauroek, je-je, zer pentsatuko zuten, bada, dinosauroek?

IV. IRAKURKETA PROZESUAK

ITEMAREN ERANTZUNAREN MOTA ETA TESTU MOTAK

Irakurketa prozesuak: IZA, L. (2007) lanetik ateratako taula. *Irakurketa plana haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan*. Eskolako liburutegiak. Blitz, liburutegiko saga. Nafarroako Gobernua. Or.17-22.

<https://www.educacion.navarra.es/documents/713364/714655/elplandelecturaeusk.pdf/3e8109e9-b065-4975-98c8-7fc6b7cd92dc>

Irakurketa prozesuak	Definizioa
Informazioa aurkitzea eta eskuratzea (testuko zati jakinei erreparatzea).	Testuan bertan ageriko informazioa lokalizatzea, hitz berak Erabiliz edo sinonimoak erabiliz.
Interpretatzea eta integratzea (Testu barruko erlazioak ulertzea: testua osotara hartuta eta testuko zatien arteko erlazioa kontuan hartuta).	Interpretatzea: testua logikaz ulertzea. Honek informazioa erkatzea eta egiaztatzea, inferentziak egitea edo laguntza probak identifikatzea dakar.
	Integratzea: ulermen orokorra: testutik funtsezkoena ateratzea, testua bere osotasunean hartuta. (Ideien arteko hierarkia ezartzea; ideiarik orokorrena eta gehien gailentzen den ideia aukeratzea).
Hausnartzea (Testuaren kanpo-ezagutza erabiltzea).	Edukiaren gaineko hausnarketa: testuko baieztapenak ebaluatzea eta testuaz kanpotik dakigunarekin egiaztatzea, edukia kritikoki aztertu ahal izateko edo errealitate horren irudikapenaren iritzia izateko.
	Formaren gaineko hausnarketa: arlo morfosintaktikoan, lexiko-semantikoan eta testuzkoan, testuaren ezaugarri linguistikoak ebaluatzea.

Ebaluazio diagnostikoaren esparru teorikoa ere kontsulta daiteke. Bigarren Hezkuntza. Or. **35-39 prozesu bakoitzean lan egiten duten eginkizunen adibideak eskaintzen dira:**

<https://www.educacion.navarra.es/documents/57308/57722/Marcoteorico2.pdf/7e430de5-1b5b-485f-b26d-c7697ac29915>

Idatzizko ekoizpena zuzendu eta ondoren lantzeko, **Idatzizko testuak zuzentzeko orientabideak lana kontsultatzea gomendatzen da. Ebaluazio diagnostikoa. Bigarren Hezkuntza. Hezkuntzako Ikuskapen Koadernoak. Nafarroako Gobernua. 2009.**

<https://www.educacion.navarra.es/documents/713364/714655/competencia.pdf/b34fa63b-0072-42b8-8821-da44faa82021>


❖ **Testuen sailkapena honako kontzeptu hauetan oinarritu da:** (2018ko PISA Irakurketarako Gaitasun Esparruan oinarritua)

- Testu jarraiak edo testu etenak:
 - Jarraia: paragrafoetan antolatutako enuntziatuek osatzen dituztenak dira, puntuazio-arauak betetzen dituzte. Izenburuek eta edukiek, edo letra tamaina nahiz letra tipoaren formatu desberdinak erabiltzeak, testuaren antolaketa ezagutzen laguntzen dute. Testu-lokailuek informazio logiko garrantzitsua ematen dute.
 - Etena: beste modu batez antolatzen dira, beraz, bestelako irakurketa-ikuspegia eta irakurketa ez-linealeko estrategiak behar dituzte. Testua hainbat elementu grafikorekin nahasten dute eta informazioa hainbat modutan aurkezten dute. Testu etenaren adibideak: zerrendak, taulak, grafikoak, diagramak, iragarkiak, infografiak, programazioak, katalogoak, aurkibideak...
- Testu motak: instrukzio, deskripzio, narrazio, azalpen, argudio eta transakzio-testua.
- Testu-generoak.

❖ **Itemen sailkapena, eskatzen duten erantzun motaren arabera:** (Hezkuntza Ebaluaziorako Institutu Nazionalaren ebaluazioaren kontzeptu-esparruan oinarrituta)

- Erantzun itxia: ikasleek eskainitako aukera bat baino gehiago hautatu behar dute, ideiak erlazionatu, baieztapen baten egiazkotasuna edo faltsutasuna ezarri, aukera jakin batzuk ordenatu eta abar.
- Erantzun erdi-eraikia: lauki edo espazio bat edo batzuk hitz edo zifra batekin betetzea eskatzen dute, esaldi bat baino gehiago osatzea edo galderaren bati erantzun labur batekin erantzutea.
- Erantzun irekikoa edo eraikia: ikasleek egitea eskatzen dute.

1. zatia – Entzumena: ERRINOZEROA



1. Entzun duzun audioan lagun batek istorio bat kontatzen du. Zergatik?

- A. Errinozeroei buruz galdetu diolako bere lagun batek.
- B. Dinosaurioak desagertu eta gero mundua nola imajinatzen duen galdetu diolako bere lagun batek.
- C. Bera desagertu eta gero mundua nola imajinatzen duen galdetu diolako bere lagun batek.
- D. Dinosaurioei buruz galdetu diolako bere lagun batek.

2. Zer esan nahi du “bazen sakon-sakonean haserretzen zuen zerbait” esaldiak?

- A. Haserre txikia sortzen ziola zerbaitek.
- B. Errinozeroa ez zela inoiz haserretzen.
- C. Haserre handia sortzen ziola zerbaitek.
- D. Errinozeroa askotan tristetzen zela.

3. Edonora joanda ere, zer ikusten zuen errinozeroak?

Ikus II. atala

4. Zein ordenatan aipatzen dira hiri hauek entzun duzun istorioan? Erabil itzazu zenbaki hauek:

1	2	3	4	5
---	--------------	---	---	---

HIRIAK	Zenbakia
Bilbao	5
Kairo	1
Paris	3
New York	2
Tokio	4

5. Adieraz ezazu entzun duzunari buruzko baieztapen hauek egia ala gezurra diren:

	E	G
A. Errinozeroa haserretzen zen bidaiatu behar zuelako.		X
B. Errinozeroak toki guztietan ikusten zuen adarra bere adarra zen.	X	
C. Dinosaurioek bazekiten desagertuko zirela.		X
D. Errinozeroak Fuji mendia ikusi zuen Alaskara joan zenean.		X

6. Errinozeroak ikusitako toki hauetako zein EZ da hiria?

- A. Kairo.
- B. Fuji.
- C. Nairobi.
- D. New Deli.

7. Zeri buruzkoa da ipuina?

- A. Asko bidaiatzen duen errinozero bati buruzkoa.
- B. Errinozeroen desagertzeari buruzkoa.
- C. Dinosaurioen desagertzeari buruzkoa.
- D. Oso adar handia duen errinozero bati buruzkoa.

8. Audioan esaldi hauek entzun dituzu:

“... eta leku guztietan topatzen zuen DITXOSOZKO errinozero-adar bera.”

“... eta bere logelara heltzean hantxe zeukan esperoan BETIKO errinozero-adarra.”

DITXOSOZKO eta BETIKO hitzek zentzu positiboa ala negatiboa dute audioan?

A. Positiboa.

B. Negatiboa.

2. zatia – Irakurriaren ulermena

1. testua: DINOSAUROAK

2. testua: POSTREA

Diplodocus

Habe bikoitza

Dinosauro erraldoietan pentsatzen dugunean, Diplodocus datorkigu burura. Haren silueta oso erraza da marrazten: lepo eta buztan luzeak eta lau hanka sendo. Urte askotan, dinosaurorik ezagunena izan zen, bere 27-37 m bitarteko luzera zela eta. Aurreko hankak atzekoak baino apur bat laburragoak zituen; beraz, beste sauropodo batzuek baino jarrera horizontalagoa zuen.



Buztaneko hezurren formari zor dio bere izena. Baina lepo ikusgarria zuen, eta hanka oso sendoak. Gorputzarekin alderatuta, buru ñimiñoa zuen.

Diplodocusen buztana ingeniaritza biologiakoaren benetako maisulana zen: oso luzea zen. 80 orno inguru zituen, eta bere burua babesteko eta zarata egiteko erabili ahal izateaz gain, 6 m luzeko lepoaren kontrapisu gisa ere erabil zezakeen.

Animalia bikain hau janari bila ibiltzen zen ia denbora guztian, eta ez zen taldetik urruntzen. Zuhaitz altuetako hostoez eta fruituez elikatzen zen, baita iratzeez eta zorutik hurbil zeuden beste landara batzuez ere. Lepo luzeari esker, urrunera begiratu

eta jakirik gozoena aukera zitzakeen.

Bere tamaina erraldoia zela-eta, harrapari askok beldurra zioten; dena den, zenbaitetan erasoak jasaten zituen. Halakoetan, buztanaren mutur argala zigor bat balitz bezala erabiltzen zuen.

Ehun orno

Diplodocusek 100 orno zituen lepoan, bizkarrean eta buztanean. Bizkarrekoak erraldoiak ziren, lepoaren, enborraren, sabelaren eta buztanaren pisuari eusten ziotelako.

Tyrannosaurus rex

Narrasti tiranoen erregea

Tyrannosaurus rex da teropodorik ezagunena. Asian eta Ipar Amerikan bizi izan zen Kretazeoaren amaieran. Erraldoia zen, inoiz izan den lehorreko haragijale izugarriena. Oso buru handia zuen, eta baraila indartsuak zituen, hortz zorrotzez beteak. Irudika dezakezu 12 m luzeko eta 7 tonako narrasti bat Kretazeoko oihanean? Haren hezurretako batzuk hutsik zeuden, eta atzeko hanketako giharrak oso indartsuak ziren. 70 km/h har zezakeen korrika.

Ez dago argi sarraskirik ere jaten ote zuen. Baina **harrapakin biziak ere gogoko zituen**, Rex batek kosk egin ondoren zauria sendatu zitzaion Triceratops baten fosila aurkitu baita.

Aurkitu den hortz handiena 30 cm luze zen errotik punta zorrotzeraino.

Hau beldurra!

Tyrannosaurusen buruak 1 m baino gehiago neurtzen zuen, eta hortz bat apurtzen bazitzaion, beste bat hazten zitzaion haren lekuan. Haren hezurretako batzuk hutsik zeuden. Hezurdura sendoa zuen, baina, aldi berean, arin mugitzen zen.



Aurreko hankak labur-laburrak zituen: ez zituen ehizarako behar!

9. Diplodocus dinosauroari zergatik deitzen diote horrela? Nondik dator bere izena?

- A. Bere tamaina handiarengatik.
- B. Bere siluetarengatik.
- C. Bere lepo luzearengatik.
- D. Bere buztaneko hezurraren formarengatik.

10. Zer esan nahi du Diplodocusaren burua “ñimiñoa” dela?

Ikus II. atala

11. Diplodocusak zertarako erabiltzen zuen bere buztana? Hautatu gezurra den erantzuna:

- A. Zarata egiteko.
- B. Bere aurreko hanken kontrapisu gisa erabiltzeko.
- C. Bere lepo luzearen kontrapisu gisa erabiltzeko.
- D. Erasoetatik defendatzeko.

12. Markatu egia (E) ala gezurra (G) diren honako esaldi hauek:

	E	G
A. Diplodocusek taldean ibiltzea gogoko zuten.	X	
B. Beste sauropodo batzuek baino jarrera horizontalagoa zuten diplodocusek.	X	
C. Lepo luzea zutenez, zuhaitz altuen fruituez baino ez ziren elikatzen.		X
D. Inork ez zien erasotzen oso handiak zirelako.		X

13. Tyrannosaurusa non bizi zen?

Ikus II. atala

14. Aukeratu Tyrannosaurus rex-ari buruzko deskribapenik egokiena:

- A. 700 kilogramo pisatzen zuen bere hezur handiak zirela eta, baina ez zioten oso azkar korrika egitea eragozten.
- B. 700 kilogramoko pisua zuen, baina hezurrak, berez, arinak zituen, eta horrek korrika azkar egiteko aukera ematen zion.
- C. 7 tona pisatzen zuen, eta, horren ondorioz, baldar samar ibiltzen zen oihanean.
- D. Zazpi tona pisatzen zuen, eta hortzak zorrotzak eta giharrek sendoak zituen.

15. Badakigu bizirik zeuden harrapakinak gogoko zituela:

- A. Rex batek kosk egin zion beste dinosauro baten fosila aurkitu delako.
- B. Haren hortz handietan arrastoak aurkitu direlako.
- C. Filmetan ikusi dugulako.
- D. Oso bortitza zelako.

16. Zenbat neurtzen du aurkitu den Tyrannosaurus baten hortzik handienak?

- A. 1m baino gehiago.
- B. 30 cm.
- C. 29 cm.
- D. 30 cm baino gutxiago.

17. Zergatik ziren Tyrannosaurusaren aurreko hankak hain laburrak?

- A. Korrika asko egiteko.
- B. Ehizatzeke ez zituenez behar ez zituelako asko garatu.
- C. Posizio horizontalagoa izateko.
- D. Animalia txikiak ehizatzeke.

Lehenengo testuko galderen amaiera

Bigarren testua - POSTREA

Arrautzesnea edo natillak

Bere horretan postre gozoa den arren, beste prestaketa batzuentzat oinarria ere izan daiteke arrautzesnea. Osagai gutxiko errezeta, bai, baina arretaz egin beharrekoa, hala ere. Osagaiak pisatu, Maria-bainua prestatu eta postrerako arrautzesne gozo-gozoa lortzea da gure helburua.

OSAGIAK

- 1 L esne
- Kanela-zotz bat
- 10 gorringo
- 375 g azukre
- 8 gaileta

EGITEKO MODUA

1. Hasteko, esnea usaingozatu. Horretarako, berotu esnea, eta bota kanela-zotza. Utzi eltzea estalita, bost minutuz.
2. Gaineratu azukrea, eta irabiatu.
3. Jarri ontzi bat Maria-bainuan. Bota gorringoak ontzira, eta irabiatu. Jarraitu irabiatzen, suabe-suabe, eta gehitu esnea, apurka. Dena nahasita dagoenean, jarraitu Maria-bainuan eta jarraitu nahasten, nahasketa loditu arte.
4. Banatu katiluetan, eta jarri gaileta bat gainean ontzietako bakoitzari. Utzi hozten.

18. Zein da testu honen helburua?

- A. Zerbait egiteko jarraibideak ematea.
- B. Zerbaiti buruzko informazioa ematea.
- C. Zerbait deskribatzea.
- D. Zerbaitetaz konbentzitzea.

19. Zergatik daude bi izen desberdin testu honetako izenburuan?

- A. Errezeta honek izen eta abizena dituelako, guk bezala.
- B. Errezeta honek bi izen desberdin horiekin ezaguna delako.
- C. Errezeta honek bi plater desberdin egiteko balio duelako.
- D. Aurreko erantzun guztiak gezurra dira.

20. Zer esan nahi du “osagai gutxiko errezeta” esaldiak?

- A. Errezeta hau egiteko osagai gutxi erabili behar direla.
- B. Errezeta hau egiteko erabili behar diren osagai bakoitzetatik kantitate gutxi erabili behar dela.
- C. Errezeta egiteko diru gutxi behar dela.
- D. Errezeta egiteko urrats gutxi egin behar direla.

21. Zer egin behar da kanela-zotza esnera bota eta gero?

Ikus II. atala

22. Zer egin behar dugu gorringoekin?

- A. Esnera bota, eta gero irabiatu.
- B. Irabiatu, eta gero esnera bota.
- C. Irabiatu, eta gero gailetekin nahastu.
- D. Irabiatu, eta gero esnea gehitu.

23. Zer da Maria-bainua?

- A. Janariari ura gaineratzea.
- B. Maria izeneko norbaitek asmatutako errezeta.
- C. Janaria prestatzeko modu bat.
- D. Janaria hozteko modu bat.

24. Errezeta honetan, zertarako erabiliko ditugu gailetak?

- A. Eltzea estaltzeko.
- B. Dena nahasi ondoren gailetak zatikatu eta eltzera botatzeko.
- C. Ontzi bakoitzari gaileta bat gainean jartzeko.
- D. Nahasketa loditzeko.

25. Adieraz ezazu 1, 2 3 eta 4 zenbakiak erabiliz errezeta prestatzeko zein ordenatan egin behar diren ekintza hauek:

3	Arrautzak eta esnea nahastu.
1	Esnea kanelaz usaingozatu.
4	Katilueta banatu.
2	Azukrea gehitu.

26. Zeintzuk dira testu honetako zati nagusiak?

- A. "Osagaiak" eta "Egiteko modua".
- B. "Arrautzesnea edo natillak", "Osagaiak" eta "Egiteko modua".
- C. "Arrautzesnea" eta "Natillak".
- D. "Sarrera", "Osagaiak" eta "Egiteko modua".

Bigarren testuko galderen amaiera

3. zatia – Idazmena: INAUTERIAK

4. mailako ikasleek inauteriak ospatu dituzte eskolan. Eskolako web orrialdean argitaratzeko berri bat idatzi nahi dute mozorro prestaketa nolakoa izan den azalduz, baita egun horretan egin dutena ere.

Testuan ideia hauek erabil ditzakezu:

- Noiz ospatu dituzuen inauteriak eskolan.
- Zertaz mozorrotu zareten.
- Nola prestatu dituzuen mozorroak.
- Inauteri egunean egindakoa.
- Nola pasa duzuen.

HASI IDEIAK ANTOLATZEN (zirriborroa egitea derrigorrezkoa da.)

1. paragrafoa	
2. paragrafoa	
3. paragrafoa	

TESTUA IDATZI:

Ongi erabili letra larriak eta zaindu ortografia.

Erabili puntuak, komak eta paragrafoak.

Inauteriak Lehen Hezkuntzako 4. mailan!

Handwritten text in Basque:

1. Inauteriak lehen hezkuntzako 4. mailan.

2. Inauteriak lehen hezkuntzako 4. mailan.

3. Inauteriak lehen hezkuntzako 4. mailan.

4. Inauteriak lehen hezkuntzako 4. mailan.

5. Inauteriak lehen hezkuntzako 4. mailan.

6. Inauteriak lehen hezkuntzako 4. mailan.

7. Inauteriak lehen hezkuntzako 4. mailan.

8. Inauteriak lehen hezkuntzako 4. mailan.

9. Inauteriak lehen hezkuntzako 4. mailan.

10. Inauteriak lehen hezkuntzako 4. mailan.

11. Inauteriak lehen hezkuntzako 4. mailan.

12. Inauteriak lehen hezkuntzako 4. mailan.

13. Inauteriak lehen hezkuntzako 4. mailan.

14. Inauteriak lehen hezkuntzako 4. mailan.

15. Inauteriak lehen hezkuntzako 4. mailan.

16. Inauteriak lehen hezkuntzako 4. mailan.

17. Inauteriak lehen hezkuntzako 4. mailan.

18. Inauteriak lehen hezkuntzako 4. mailan.

19. Inauteriak lehen hezkuntzako 4. mailan.

20. Inauteriak lehen hezkuntzako 4. mailan.

Irakasle zuzentzaileak erabili eta bete beharreko puntuazio-taula

ATALAK		PUNTUAZIOA 0 / 0,25 / 0,5 / 1
Plangintza		
Txukuntasuna		
Ortografia		
Gramatika-zuzentasuna		
Hiztegi-aberastasuna		
Egokitzapena		
Koherentzia		
Kohesioa	Lokailuak	
	Kohesioa mekanismoak	
	Puntuazioa eta paragrafoak	
27. itema – Osotara:		/10